

Funtsezko elkarteak atala azaltzeko, bi zatitan banatuta dugu. Alde batetik, bazkide klabeak eta bestetik, agente bakoitzaren rola.

Gure bazkide klabeak hauen inguruan dauden hortuak eta jatetxeak izango dira. Haiekin izango dugun harremana honako hau izango da; haien ekoizten dituzten elikagi guztiak salduko dizkigute prezio on batean (haiei bakarrik erosiko baitugu) eta horrela bezeroek sukalda dezaten. Gure nahia beti plater gozoak egiten irakastea izango da.

Lehenengo hariari jarraituz, jatetxeekin izango dugun harremana adieraziko dugu: jatetxe hauetako sukaldari garrantzitsuak gurekin bazkidetza bat izanda haiei promozioa eginez gero gure ikastaro batzuk bideratzeko aukera izango dute. Gure partehartzaileentzat aberasgarriagoa izango da haiek sukaldatzen irakastea. Gainera, famatuak izanez gero atentzio handiagoa jarriko baitute eta onuragarria izango da ere guretzat.

Era berean, bezeroek plater eta teknika berriak ezagutuko dituzte eta agian, haien idoloekin harremanak izateko aukera izango baita. Gero, enpresa barruko agente bakoitzak izango du rol zehatz bat eta hemengo hau izango da; 4 partaide izanda bakoitzak zeregin bat izango du baina kasu batzuetan, jarduera jakin batzuk pertsona bat baino gehiago egin behar dute. Lehengo zeregina, hortuekin kontaktuan egotea izango da eta horretarako pertsona bat baino gehiago beharko dugu. Bakarrik hitz egingo dugu gure inguruan dauden hortuekin modu honetan, Euskaldun produktuak sustatuko ditugu, hots, km0-ko elikagaiak.

Horren haritik, jatetxeekin harreman estu bat behar dugunez pertsona bat baino gehiago behar izango dugu lana ondo eramateko eta horrela, kontaktu sendoago bat izan ahalko dugu.